

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko urtarrilaren 11

Egunkaria

Gehigarri honetan

Agoitz: Angiluerreka elkarteak tribial moduko mahai jokoa plazaratu du herriko kontuen ezagutzan sakontzeko
Jon Andoni Goikoetxea: «Lortutako lagunak dira gehien estimatzen dudana»

Antzinako doinuak gaurko erara



Aekantuz

Manolo Arozena bertsolaria eta Skalariak taldea agertoki berean batera ikustea fikzioa da oraindik. Baina hori ikustetik hurbilago gaude. Izan ere, lehenagoko doinuak era modernoan musikatzen dituzten

bi disko argitaratu dituzte berriki Nafarroan: Aekantuz eta Nafarroa, hitza dantzan. Lehenbizikoan, herri kanten eta euskal kantarien abesti zaharren bertsio modernoa egin dute. Bigarrenagoan, antzinako



bertsolaritza doinuetatik abiatuta, gaurko bertsolari eta musikariek kanta berriak egin dituzte.

Inauteriak Nafarroan...

Agoitz • Herriaz galdezka

Angiluerreka elkarteak tribial moduko mahai jokoa plazaratu du, Agoizko kontuetan sakontzeko

Galdezka, Agoizko jokoa: 1.500 galdera-erantzun euskaraz eta gaztelaniaz, Agoizko herriaz inork baino gehiago dakizula erakusteko. Eguberrien aurretik 300 ale atara zituzten, eta gehienak salduta daude.

ZEIN HAUTAGAI ZERRENDAK lortu zuen boto gehien 1987ko udal hauteskundeetan, PSOEk, HBk edo EAK? Zenbat *solidariok* moztu zituzten urte-giko kableak? Zeintzuk dira azkeneko hamarkadetan gure herriko festak alaitu dituzten gaitariak? Zein hilabetetan egiten ziren arrosarioak kaleetan barrena?

Sakanan egin zuten gisara, Agoitzen ere badute tribial joko propioa: *Galdezka, Agoizko jokoa*. Angiluerreka kultur elkarteak egin du, eta arrakasta handia izan du herrian. Galdera guztiak Agoitz herriaren ingurukoak dira, eta sei sailetan banatu dituzte: historia eta artea; toponimia, geografia eta natura; industria, merkataritza, nekazaritza eta abeltzaintza; kirolak eta besteak; kultura eta euskara, eta ohiturak eta bitxikeriak.

Galderak prestatzen Angiluerrekako hamar bat laguneko taldea izan da lanean, urtebetez. «Zaila izan da», onartu du Kristina Cosinek, lan talde horretako kideak. «Galderak sortzeko, liburuak irakurri eta herriko jendearekin hitz egin behar zen asko. Gero, errepikatzen ziren galderak edo antzekoak zirenak alboratu behar ziren. Eta, azkenik, akatsak zuzendu». Eta jokoa euskaraz eta gaztelaniaz egin dutenez, lan bikoitza.

Euskaraz eta gaztelaniaz jolasteko

Denetara, 1.500 galdera ditu jokoak. Baina hizkuntza oinarri duten galderak ezberdinak dira euskaraz eta gaztelaniaz. «Euskaldunek euskaraz jokatzeko erabateko aukera izatea nahi

genuen guk», dio Cosinek. Hortaz, 1.500 galdera baino gehiago. Eta, Cosinek iragarri duenez, urtebetera-edo galdera gehiago ateratzeko asmoa dute. Eta txapelketa bat ere antolatuko dute hemendik gutira.

Galderak irakurrita, dendenei ongi erantzuteko, Agoizko peto-petoa izan behar duzu nahitaez. «Abdon Ansok (herri-

ko medikuak) 1984. urtean lanari utzi zion. Zenbat urtez egon zen sendagile, 38, 39 edo 40?», galdetu diogu Cosini. Erantzuna 38 da, baina Cosinek, Agoizkoa izanagatik ere, ez zekien erantzuna, galdera hagitx zaila baitzen. Baina badira galdera errazagoak. Eta batzuei Agoizkoa ez denak ere erantzuten ahal die, Itoizko urtegiaren edo naturaren ingu-

rukoak baitira. Angiluerrekako Agoizko Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta herriko hainbat enpresaren laguntza jaso du mahai jokoa ateratzeko.

Eta bukatu baino lehen, hasierako galderen erantzunak: HBk; zortzik; Iruñeko gaitariak (Javier Lakunza eta Fraile anaiak), eta urrian.

→ Asier Azpilikueta



'Galdezka', Agoizko kontuen ezagutzan sakontzeko mahai-jokoa. ● ASIER AZPILIKUETA

Orabidea

Urteko lehen inauteak

BAZTANDAR ANITZENTZAT inauteak dira urteko bestarik estimatuenak. Hamabortz herrietan ospatzen dira inauteak, eta baita zenbait auzotan ere. Urteko lehenak gaur eta bihar izanen dira, Orabidea auzoan.

Orabideko baserriak zenbait herritakoak dira, hala nola Arraioz, Lekaroz, Arizkun eta Azpilkuetakoak. Halere, denak elkarturik, besta ederra egiten dute inauteetan. Besta hau hain goiz ospatzen dute, akordeolaria, Joxe Angel Elizalde, bertakoa delako eta hurrengo asteetan Baztan-Bidasoako bertze sei herritan jo behar duelako. Infernuko hauspoa herriz herri jotzen dutenak gero eta guttiago direnez, herri batzuek ez dute nahi dutenean inautea ospatzen ahal.

Orabidean gaur hasiko da saltsa; gazteak baserri base-ri ibiliko dira «puskak» biltzen. Gehienetan txistorra eta arraultzak biltzen dituzte saskietan, baina egun bada bertzerik ematen duena. Etxekoandreekin dantzan aritzea eta tarteka zer edo zer kantatzea da ohitura. Gazteek gustura hartzen dituzte ematen dizkieten sosa (euroak hobe), afaria eta besta ordaindu ahal izateko. Baserrien erdia pixka bat goiti-beheiti bisitatu dituztenean, Etxebertzeko Bordan bilduko dira afari ederra egiteko. Bihar, larunbatean, eguna antzera pasatuko da.

Hurrengo astean Arraiozek hartuko du txanda; hilabete amaieran Anizkoak ospatuko dira; Elbeteko gazteak urtarriaren 2an bilduko dira; eta gaitariaren 8tik 12rako tartea hartuko dute inauteak ospatzeko.

→ Rakes Goñi

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Harrigarria bada, fede oneko jendearentzat, hau da, gizalegez, zuhertziak jokatzen duen edozeinentzat eskandalugarria ere bai. Fernando Sebastian Iruñeko elizbarrutiko lehen buruzagiak, artzapezpikuak, PPko politika bere egin eta soilik espainiar nazionalista diren elizkideak ordezkatzera erabaki du.

Indarkeria gaitzesteko aitzakiaz bortizki erasotzen digu, gure sinismenak eta eskubideak errotik moztu nahian. Hona etorri geroztik etengabe ari da iskanbilak sortzen, eliza barnean eta kanpoan.

Mutur osoarekin dio euskaldunok ez dugula inongo injustiziarik jasotzen, ez direla gure eskubide eta askatasunak murrizten. Aurpegia behar da hori esateko, euskara eta euskal kulturaren aurkako erasoak etengabe ezagutzen ari garen honetan, gure subrotasuna aldarrikatzeko edo horren inguruan ezer erabakitze behin eta berriz

Fernando II.a Katolikoa

ukatzen zaigun honetan. Euskal abertzaleak ez omen daude arriskuan. Oraindik halakorik!!!! Galdeiozu zure auzokide den Manoli Artzari ia zergatik tirokatu zuten. Esaiozu Orbaizetako Zabaltza familiari nolatan hil zen Mikel, Intxaurrondoko kuartelean. Jakin duzu inoiz zer gertatu zitzaion Lakuntzako Mikel Arregiri? Zergatik hil zuten? German Rodriguez iruindar gaztea ez zen ohatzean hil gaixotasun batez, Fernando Jauna!!!! Eta nire herriko alkatea, PNVkoa zena, zergatik hil zuten Tafallako kartzelan zeuden beste presoekin batera Elotik gertu. Eta zergatik utzi zuten nire aita umezurtz? Eta zergatik torturatu dituzte gure herri honetan horrenbeste gazte. Ikusi al dizkiezu haien zauriak? Nik bai. Ez al duzu inoiz ezagutu preso eta erbes-

teratuen sufrimendua? Eta beren familikideena...

Ba, horiek guztiak ERE herri honek aspaldiko partez jasaten duen gatazkaren biktimak dira, eta zure ondoan bizi dira, espiritualki zuregandik geroz eta urrunago noski.

Eginiko kalteaz barkamena eskatu beharrean, zikinkeria gehiago ari zara zure Elizari botatzen. Zu zeu ari zara elizak husten!!!

Estafeta kalean bazegoen gaur eskale bat akordeioa jotzen. Lepoan hartu, Eusko Gudariak eta antzeko aireak ari zen zabaltzen txanponak jasotzeko. Marketin eta horrelakorik ikasi gabe, eskaleak badaki nola iritsi Iruñeko ibiltariaren bihotzeraino. Eta alderantziko bidean dabil Sebastian Katoliko Bigarrenak hiru karraka haruntzago, herri xeheregandik geroz eta urrunago, geroz eta okerrago, haresien itzalean geroz eta bakartiago...

Iruñerria •

Rokodromo publikoen ameskeria

NUPeko rokodromoa azarotik itxita dago, eta Atarrabiakoak ez ditu ase erabiltzaileen nahiak

NAFARROAKO UNIBERTSITATE Publikoko pabiloiko rokodromoa 2000-01eko ikasturte hasieran zabaldu zuten. Hasieratik erabiltzaile asko izan ditu, eta eguneko ia ordu guzietan erabili diren instalazio-etako bat izan da.

Baina iragan urteko azaroaren erdialdean rokodromoa itxi egin zuten. Kirol Zerbitzuko langile Martin Gilek eman zuen horretarako agindua. «Rokodromoak bazuen segurtasun arazoren bat, edo segurtasun arazoren bat sor zitekeela pentsatu zuten», erran dio Gilek NAFARKARIAri. «Horregatik, segurtasunaren inguruko azterketa egiten ari dira orain. Unibertsitateko departamentu bateko proiektu ingeniari bat ari da horretan. Eta azterketa

bukatu bitartean, ezin da erabili rokodromoa. Ingeniaria hasi da azterketa egiten, eta zenbait neurketa egin ditu. Baina ez dakit orain zein fasetan dagoen azterketa hori, eta ezin dut zehaztu noiz irekiko dugun berri rokodromoa».

NUPeko rokodromoa itxita dagoenez, eskalatzailerak asko Atarrabiara joan dira. Atarra-

biako pabiloiko rokodromoa iragan uztailean zabaldu zuten. Berria izanagatik ere, ez da eskalatzailerak askoren gustukoa izan. Top 30 enpresak hagitik rokodromo ederra egin zuten. Baina arazoa da rokodromoa pasabide batean egin zutelako, deustarako erabiliko ez zen espazio bat profitatzeko. Gauzak horrela, rokodromoko leku askotan ezin

da eskalatu, pabiloiko harmailetatik gertuegi dagoelako.

Eta prezioa ere ez da batere erakargarria. Bere garaian, rokodromoa aurkezteko prentsaurrekoan, adierazi zuten federatuek eta Atarrabiako Kirol Patronatuaren txartela zutenek 500 pezeta ordaindu beharko zizutela sartzeko, eta beste guzietan, 700 pezeta. Bada, federa-

tuen artean Patronatuaren txartela dutenek 300 pezeta ordaindu behar dituzte; atarrabiarrek, 400 pezeta; eta atarrabiarrak ez direnek, 700. Eta federatua ez denak beste 700 pezeta ordaindu behar ditu aseguruagatik.

Eta Arantzadikoa, noizko?

NUPeko eta Atarrabiako rokodromoaren egoera ikusita, askori Arantzadiko proiektua etorri zaie burura. Aspaldiko proiektua da Iruñeko Arantzadi udal instalazioetan rokodromo egitea. Egun, oraindik, ez da proiektu ziurra. Mendi Federazioako ordezkariak Iruñeko Udaleko ordezkari batekin bildu ziren iaz, eta hark informazioa eskatu zien arkitektoei emateko. «Eskatu zigun txosten bat egitea, behar eta nahi genuena zehaztuz», azaldu du Mendi Federazioako le-

hendakari Koldo Goñik. «Baina ez zigun erran ea rokodromoa egiten zuten ala ez. Informazioa eskatu zigun. Guk txostena egin dugu, eta heldu den astean berarekin elkartzeko gara berriz. Eta nik espero dut hemendik hilabete batera zer edo zer zehaztua egotea».

➔ Asier Azpilikueta



NUPeko rokodromoa azarotik itxita dago, segurtasun azterketa bat egiteko. • MIKEL SAIZ

Iragan urtean Iruñerriko rokodromo publikoen inguruan zeuden aurreikuspen asko bertan behera gelditu dira. NUPekoa itxita dago, Atarrabiakoak ez da behar bezain ona, eta Arantzadiko proiektua ez dago oraindik zehazturik.

herri aldizkariak

Eduñe Elizondo

Ikastola, Larratz taldea eta sokatira

Burlatoko hamaika berri bildu ditu Axular aldizkariak bere azken zenbakian. Askotarikoak dira berriok jorrazten dituzten gaiak. *Umeak baratzean* izenburuko artikulua, adibidez, Paz de Ziganda ikastolako haurrek gelatik kanpo egiten duten ekitaldi baten berri ematen du: «Irailean baratze lanei ekiten diete, hau da: lehenengo lurra prestatu, ondoren ongaria bota eta bukatzeko hazi batzuk erain eta beste batzuk landatu. Aurten azalorak landatu dituzte. Babak, ilarrak, garia eta garagarra

erein egin dute. Aurten batzuei bururatu zaie errotatxo bat egitea eta eskulanetan egindako errota baratzean eraman dute».

Axularrek herriko Larratz Dantza Taldearen 25. urteurrena ere aipatzen du bere azken zenbakian. Larratz taldeaz ondokoa dio Aritz Ibañezek sinatu artikulua: «Lehenengo urratsak, beti bezala, zailak izan ziren. Garai hartako Larratzeko dantzariak hutsetik hasi ziren. 1978. urtean beste talde batzuetako dantzarien laguntza jaso zuen Larratzek eta haien

esperientziari esker dantza taldea indartu egin zen». 25 urte betetzeko adina indar hartu zuen Larratzek.

Sokatirari ere txoko bat egin dio Axularrek azken zenbakian. «1999. urteko udaberrian Euskal Herria Peñako kide Tximis, jendea biltzen hasi zen eta geroztik talde bat sortu eta sendotu zen. Gaur egun, Nafarroako eta Euskadiko txapelketetan parte hartzen dute eta momentu honetan Nafarroako txapelketan buru belarri sartuta daude».



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Likenak

Beti bezala Takoneratik pasean; negua, araba-zozoak, Vienas kafetegia itxirik eta harresiak edonondik. Eta harresietako harrietan likenak. Gauza txikitxu horiek, basotxo mikroskopiko eder horiek. Fisikari-magoek esaldi harrigarriak botatzeko ohitura duten legez, orain ere guk esan genezake: likenak ez dira existitzen, kontzeptu bat besterik ez da. Eta hein batean egia da, zeren likenak berez ez dira gauza bakar bat, bi gauzaren arteko sinbiosia baizik. Alga eta onddo batek osatutako harreman sinbiotikoa da. Fisikari-magoek gu geu gauza askoren arteko harreman batzuk besterik ez garela esan lezake, baina likenari atxikiak segituko dugu oraingoan. Bada, harritu zaitezte! Txan!, onddoak algari azken honek bizitzeko ezinbestekoa duen hezetasuna eskaintzen dio, eta algak elikagaia ematen dio (karbonoa) onddoari, zeren algak (poliki-poliki gora egiten duten danborren burrunba eta txan!): alga fotosintesia egiteko kapaza daaaaa!!!. Eta onddo ez, aizue. «Eta karbono puto hori zertarako?», esango duzue. Bada, bizitza karbonoaren gainean eraikitzen delako aizue, edo, beste modu batez esanda, bizitza deitzen dugun hori, gauzen-harreman berexi hori, karbonoaren gainean eraikitzen den zera bat da (eta ohartu zaitezte: esaldi honetan karbonoa komatxorik ez duen osagai bakarra dela, benetakoena seguruenik!). Bada, oinarri guzti-guztia alga bezalako oinarri umiletatik dator, landareetatik, beraiek sortzen baitute karbonoa, fotosintesiaren bidez, eta hitzak bete-betean adierazten duen moduan (poliki-poliki gora egiten duten danborren burrunba eta txan!): fotoiak harrapatzeko gai dira!!! (txaloak). Gu ez bezala, partikulen munduan bizi dira, non energia eta masa eta abiadura gauza bera diren!! (Txan! Txan! Txan!), eta ez dute oilaskoa jaten edo txitxarroa, uhin bat baizik!! Uhin bat!! Frekuentzia bat!! Abiadura bat!! (Txan porropopopo txaaaaannnnn!!!): argiaren abiaduraz elikatzen dira eta elikatzen gaituzte!!

Eta harresietan begiratu gero, hortxe daude likenak, edonondik. Partikulen ozeano erraldoia eraldatzen. Izarrari, gure izarrari, gu ez bezala, estuki lotuak. Likenak, aizue, gauza txikitxu horiek, basotxo mikroskopiko eder horiek. ●

Aspaldiko moldeen gaurkotze

'Aekantuz' eta 'Nafarroa, hitza dantzan' diskoetan lehenagoko soinuak era modernoak musikatu dituzte

Bi disko, bi istorio: Irrintzi euskaltegiko laguntzaileena eta Nafarroako bertsolariena. Finean gauza bera egin dute: aspaldiko moldeak gaurkotu. Euskaltegikoan, **Aekantuz-en**, herri kanten eta euskal kantarien abesti zaharren bertsio moderna egin dute. Bertsolarien diskoan, berriz, **Nafarroa, hitza dantzan** izenekoa, antzinako bertsolaritza doinuetatik abiatuta, gaurko bertsolari eta musikariek kanta berriak egin dituzte.

AEKANTUZ, EUSKALTEGIKO DISKOA. IRUÑEKO Donibane auzoan dagoen AEK-ko Irrintzi euskaltegian, matrikulazioen behera-kadari hobekien eutsi dion Nafarroako euskaltegi dinamikoan, aspalditik zebilen musikarekin zer edo zer egiteko mamua.

Ikusita euskaltegitik hainbat musikari pasatu dela, azkenean, era modernoan musikaturiko aspaldiko herri abestiez osaturiko disko bat egitea otu zitzaion euskaltegiaren inguruan lanean ari den jende multzo bati. Donibaneko Irrintzi euskaltegiko laguntzaileak izena paratu diote jende multzo horri: «Ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak, irakasle ohiak eta inguruan dabilzan pare bat lagun. Hamar bat denetara», azaldu du Asier Biurrunek, diskoaren bultzatzaileetako batek.

Euskaltegiko diskoa

Argi gera bedi diskoa, berez, Irrintzi euskaltegiko laguntzaileek atera dutela, baina AEKri eta horren inguruan mugitzen diren guzietan eskaini diotela.

«Hartu genituen gure abesti liburu zahar guziak, eta egin genuen herri abestien zerrenda», dio Biurrunek. «Era berean, deitu genien euskaltegitik pasatutako musika talde guzietan. Batzuek baietz erran zuten, eta bertze batzuek ezetz, ezin zutela, bai bertze disko batean parte hartzen ari zirelako, bai beren proiektua lantzen ari zirelako. Talde piloaren hitz egin genuen. Lana hartu genuen horretan. Izan ere, guk atera nahi genuen zerbait polita, duina. Eta, horretarako, deika eta deika ibili behar duzu, bertzenaz ez dago modurik». Koma, Leihotikan eta Zirikatu taldeek baietza eman zioten. Ez, ordea, Skalariak eta Hemendik At! taldeek, orduantxe bertsolarien diskoan parte hartzen ari baitziren.

Bertsolarien diskoa

Nafarroa, hitza dantzan, bertsolarien diskoa. Iñigo Ibarra bertsolariaren buruan ere aspaldi zebilen Nafarroako bertsolari eta musikariek zer edo zer egiteko asmoa. «Hasi ginen hitz egiten zenbait musika taldeekin», azaldu du Ibarrak. «Eta ikusiz oso jarrera ona zegoela, Gor disketxera jo genuen, taldeok bertakoak zirelako. Bertsosale Elkartearen oniritzia lortu eta gero, Joxema Leiza eta biok hasi ginen lana koordinatzen».



Asier Biurrun

'Aekantuz'

«Zenbait taldek duela 30 urteko euskal kanten bertsioa egin dute. Azken batean, Mikel Laboaren abesti bat herri kanta bilakatu da dagoeneko»

«Lehendabizi, talde hautaketa egin genuen. Batetik, saiatu ginen taldeak estilo zeharo ezberdinetakoak izan zitezten, ez izatea denak rockeroak, edo denak oso klasikoak. Bestetik, ezagunak ez ziren taldeei ere harre-
ra egin nahi genien. Osotara, hamazazpi talderen zerrenda osatu genuen, hamazazpi bertsolari ginelako; Nafarroako azken bertsolari txapelketan parte hartu zuten bertsolari nafar guziak, hain justu, Xabier Silveira eta Juan Mari Lopez izan ezik (ezin zuten)».

Talde bakoitzari bertsolari bat egokitu zioten, hurbiltasun geografikoari erreparatuta. Adibidez, Manolo Arozena lesakarrarendako errazagoa zen Zioren taldearekin aritzea, Arantzakoak baitira, Nafarroako beste puntako talde batekin aritzea baino. Hurbiltasun «ideologikoa» ere kontuan izan zuten, ez zedin gertatu bertsolari batek drogaren kontra abestea eta gero taldea drogaren legalizazioaren alde egotea.

«Musika estilo ezberdinak biltzeko asmoa genuen, baita doinu ezberdinak ere», segitu du Joxema Leitzak. «Xenpelar dokumentazio zentzura jo genuen, eta han hainbat neurritako doinuak hartu genituen, zortziko ti-



'Aekantuz'
Iraupena: 39 min 10 s
Kantak: 10
Bultzatzailea: AEK-ko Irrintzi euskaltegiko laguntzaileak
Disketxea: Gor
Salneurria: 12 euro (2.000 pezeta)
Disko kopurua: 1.700


- [PLT]: Ezpatadantza (Herrikoia)
- Koma: Baga biga biga (Herrikoia)
- Zea Mays: Gogo eta gorputzaren zilbor hesteak (Mikel Laboa)
- Ken 7: Izarren hautsa (Xabier Lete + Antton Valverde)
- Betagarri: Agure zaharra (Xabier Lete eta Lluís Llach + Gorka Knörr)
- Zirikatu: Eperrak (Herrikoia)
- Selektah Kolektiboa: Joan dira, joan (Benito Lertxundi)
- Leihotikan: Ikusi mendizaleak (Herrikoia)
- Parasma: Kanpo (Dani Landart + Mixel Ducau eta Anje Duhalde)
- Triki-zio: Itsasoa urak haundi (Julen Lekuona)

kiak, handiak, zortziko zaharra... Nafarroakoak gehienak».

Bi proiektuen garatea

Euskaltegiko diskoan, hasierako asmoak apur bat aldatu ziren gero. Hasieran, herri abestiek bakarrik osatu nahi izan zuten, Biurrunek esan duenez. «Baina, azkenean, talde batzuek egin dutena izan da euskal musikaren altxor horretatik hartutako kanta batzuk musikatu, zaharrak izan edo ez. Guri ondo iruditu zitzaigun; azken batean, Mikel Laboaren abesti zahar bat, duela 30 bat urtekoa, herri kanta bilakatu da dagoeneko. Eta jendeak, jeneralean, Mikel Laboa ezagutzen du, baina ziurrenik, askok ez dute kanta hori entzuna izanen».

Bertsolarien diskoan, asmoa zen doinu zaharrak oinarri hartuta, kanta berriak egitea. Kanta egiteko hainbat aukera zituzten taldeek. Behar hainbat bertsokantatzen ahal zituzten ezarritako doinuak, eta bertsokantatzen beste-
terako tartean doinu aldatetako sartu. Edo bertsokantatzen gisa hartu, eta horren harira kanta berria sortu. Pettik eta Zioren taldeak, adibidez, doinu berriak sortu dituzte.



'Nafarroa, hitza dantzan'
Iraupena: 69 min 55 s
Kantak: 17
Bultzatzailea: Nafarroako Bertsosale Elkarte
Disketxea: Gor
Salneurria: 13,82 euro (2.300 pezeta)
Disko kopurua: 2.000

- Estitxu Arozena / Barricada: Graziana Barrenetxekoa
- Aritz Saragueta / Berri Txarrak: Bizitzaren iturria
- Nerea Bruño / Berserk: Herri okupatuak
- Xabier Terremos / Buitraker: Bide berriak
- Ekintza Landa / Dank: Emakume izan nahiean
- Joxema Leiza / Dikers: Plaza zahar, plaza berri
- Julen Zelaieta / Hemendik At!: Gaba zurekin
- Bittor Elizagoien / Itturri: Mariano Izeta
- Iñigo Ibarra / Leihotikan: Kamile hartza
- Xabier Legarreta / Maider Ansa: Altxor bahitua
- Oskar Estanga / Marea: Eutsi goiari
- Iñigo Olaetxea / Pett: Isiltasuna oihuka
- Joxe Juan Zubieta / Skalariak: Arazoak arazo
- Pello Goikoetxea / Tijuana in Blue: Altxairuzko hesiak
- Ekhiñe Etxepeteleku / Tximeleta: Euskalkiak eta euskara
- Mikel Altzuart / Ufestuek: Bidesendei bai!!
- Manolo Arozena / Zioren: Gure patxarana

Makina bat helburu lortzeko

Hainbat helburu erdiesteko bide izan dira bi disko hauek. Euskaltegiko diskoa egiteko tenorean, buruan zituzten zenbait gauza: «Euskal Herriko kantatzeko ohiturari heltzea», «euskal kulturari ekarpena egitea», «kanta zaharrak berreskurzea», «AEK-ren kontrako erasoei erantzutea» eta «koordinakunde-
rentzako laguntza ekonomikoa eskuratzeko».

«Azken hilabeteetan eraso asko jasan ditugu, eta horren salaketa alaia egin nahi genuen», dio Biurrunek. «Betiko salaketa moldeak, arratsaldeko bortzetako manifestazioak eta, oso ikusiak daude, eta zerbait berria eta alaia egin behar zen. Zerbait kulturala ere bai, Euskal Herriko kantatzeko ohitura galdu hori pixka bat indartuko zuena, antzinako doinuak berrituz. Diskoak doinu zaharrak gaurko moldeetara ekartzen dituzte, gazte jendearekin zein helduekin atsegin egiten zaie».



Iñigo Ibarra

'Nafarroa, hitza dantzan'


«Bertsokantatzeko toki gehiagotara helarazi nahi genuen. Bada jende asko bertsokantatzeko sekula joan ez dena, eta musika gustuko duena; haiengana iritsiko gara»



'Kamile hartza'

Negua lotan eman ondoren esnatzen naiz gosetua, sabela hutsik, hesteak lehor, itxura nahigabetua, atzapar eta hortza zorrotzez herri norabidetua; Erronkariko izendapena hortan nago zaletua.

Iñigo Ibarra / Leihotikan



'Gaba zurekin'
Bizitzaren bizigarri, lagun jatorra zara, zuri esker nere pena poz bihurtu da jada, zure xarmak erotzen nau, gehiegi behar bada; hala ere gaur zurekin pasatu nahi dut gaba.

Julen Zelaieta / Hemendik At!



'Bizitzaren iturria'

Lotu ezin diraden herrientzat lotura estalirik beraien arteko samindura zuk hamaika txokotan sortuaz lilura noiz edukiko dugu zugarako ardura.

Aritz Saragueta / Berri Txarrak



'Graziana Barrenetxekoa'

Sutan erretzea da euren azken hitza gurekin bukatzeko alferrik dabilta. Gauaren ilargia adibide gisa heriotzak hasten du hurrengo bizitza.

Estitxu Arozena / Barricada

rietara iritsiko gara. Bigarrenik, bertsosarentzat formatu berriak aurkitu nahi genituen, gaurkotzeko edo. Ez dut esan nahi bertsosale gaizki dagoenik, inondik inora ere; gurea da, mantendu eta erabili behar dugu. Baina halako berritzea egin nahi genuen».

Hirugarrenik, «euskara zalantzan jartzen den Nafarroa honetan», erabat euskal disko egin dute Nafarroan, «hemen gaudela esateko»: izenburua bera, bertsolariak, taldeak, doinuak, gaiak, disketxea, grabazio etxea, diseinatzailea. Den-denak Nafarroakoak.

Eta laugarren helburu bat ere aurkitzen ahal dugu: doinu zaharrak berritzea. Hamazazpi, behintzat, gaurkotu dituzte.

Diskoetako harribitxiak

Euskaltegiko diskoa, bere osotasunean, harribitxi bat da. Oso disko borobila atera zaie, azalean eta mamian. Hagitz kanta onak egin dituzte hamar taldeek, bakoitzak bere estiloan. Iruñeko Zirikatu taldeak ere, diskoan parte hartu dutenean artean ezegzagunena, epe-
rrak kantaren bertsio ederra egin du, Arturo Villanueva gitarrak jolea kartzelan izanagatik ere. Villanueva urte hasierarekin atera zen

kalera, eta gustura hartu du berriz gitarra.

Akaso **Aekantuz** diskoaren kantarik pattalena Leihotikan taldeak eginikoa izan da. Baina bazuten aitzakirik; bertsolarien diskoan ere ari ziren. Eta, **Nafarroa, hitza dantzan** diskoan Leihotikanek moldaturikoa da kantarik onena, Iñigo Ibarraren hitzekin, Camille hartzaren ingurukoa.

Bertsolarien diskoa ez da horren borobila, estilo oso ezberdinetako kantak baitaude. Badira oso kanta onak, eta horren onak ez direnak. Baina badu harribitxi distiratsu bat, diskoaren erosteko nahikoa. Tijuana in Blue talde desagerdua disko honetarako kanta bat grabatzeko propio bildu zen. Iñigo Ibarra tijuana-azale amorratuak izan zuen horren errua. «Entzuna nuen Eguzki Irratiko kontzertu baterako elkartzeko zirela», esplikatu du. «Baina bertan behera gelditu zen. Eta nik deitu nuen. Asko gustatu zitzaion ideia. Hasi ziren bazterrak harrotzen, eta azkenean, animatu ziren. Astebeteko kontua izan zen. Oso gustura aritu ziren, gainera». Grabazio-argazkirik ez omen dago. Lastima.

Asier Azpillikueta



Nik eserita egiten dut, eta zer?

Ceregumil complex.

Olentzerori zein Errege Magoei ordenagailuaren aitzinean airtzeko aulki berria eskatu behar nien. Nagikeriagatik ez nuen egin, eta orain larrutik ordaintzen ari naiz, seme-alaben eta beren amaren zain desesperaturik. Gaur Jonnek eta Larraitzek ikastolaren ondotik ingelesa zuten... Ez, barkatu, frantsesa... Edo kontserbatorioa? Baleta? — emaztearen iduriko, eskolaz kanpoko jarduera ugarietz pizkundeko neska-mutilak zizelkatzen ari gara, **Jose Luis Mendoza** txikiak. Nire aburuz, horrenbeste pitokeriarekin *Operación Triunfo*-ko lehiakide txikiak hezten ari gara, **Jose Luis Morenokumeak**—.

Oraindik existituko al da Ceregumil complet? Ongi letorkidake, neure oroimen gero eta ahituagoaren berpizteko.

Aulkiak, aulkiak, aulkiak. Finean, ez dakit seme-alabek zer demontre zuten, baina badakit emaztea bila joan zaiela, eta espero dudala ahalik eta lasterren itzultzea; izan ere, ordenagailuaren aitzinean erabiltzen dudana aulkiak preso nauka, eserlekua **Baltasar Garzon** epaile magoa balitz bezala, ni eus-

kal gazte alaitsu eta kementsua banintz bezala. Altzairu zapaltzailea Almacenes del Coponeko urtarrileko merkealdian erosi genuen duela urte bete, honako zutabe hau idazten hasi nintzelarik. Txikia da, eta estua, eta zenbaitetan bizkarraldeko malgukiak —Elhuyarren arabera hala esan behar zaio euskaraz *muelleari*. To!— huts egiten dio, eta horrelakoetan bizkarraldeak eta bi besoek pintza osatzen dute —garai batean (duela mende bat?) PPK eta IUK PSOE-rekin egiten zuten modu berean. Gogo-

ratzen?— eta pintza horrek preso hartzen nau.

Rodolfo otarrainxka. Eguberrien aurretik, neure kasa askatzen ahal nintzen eserlekuaren zapalkuntzatik. Baina Eguberrien ondotik, gaur, ezin dut. Egunotan, besteak beste itsaso zabaletako otarrainxka —*langostino*, Elhuyarren arabera. **Miren Azkarate**, **Xabier Kintana** eta enparauen burutazioek txundituta naukate gaur— guztiak irentsiz, **Marlon Brandonen** igua-

la izatea lortu dut. Eta lorpen horrek mugikortasuna mugatu dit. Neure burua askatzeko ahalegin baldarrean, Olentzerok Jon semeari ekarri **Harry Potterren** koprofagia laborategia txikitu dut ostikada batez. Hartara, neure begi ninietako ondorengoari kontzeptu berria azaldu beharko diot: askapen mugimenduen zeharondorioak.

Eta zer? Aulkia gurpilduna da, eta horri esker, ederki kostata bada ere, zertxobait mugitzerik daukat. Alferrik, baina. Egongelan nago, eta egongelan egonda bi aukera daukat. Bat turroien erretilua erabat hustea da, baina horrek salbamendu lanak are gehiago zailduko lituzke. Bestea telebista piztea da, baina ez naiz ausartzen. Urtezahar gauean zapping azkarrean aritu baintzen ere, **Paulina Rubio**

kate batetik bestera segika aritu zitzaidan, eta nago oraindik ere hor egoten ahal dela **Ricardito Bofillen** ustezko neska-laguna, pantaila txikian gordeta, gupidagabe kantuan hasteko prest. Gauzak horrela, irtenbide bakarra gertzen zait: itzarotea. Gutxienez, Eguberriak amaitu dira. Gutxienez eserita nago. Beraz, **Mikel Bujandak** euskal irratigintzaren historian mugarririk den irragarkian egiten duen aldarrikapenarekin bat egiterik izanen dut: nik eserita egiten dut, eta zer?

● MIREN SAEZ



Miren Azkarate, Elhuyar biblikoaren zuzendarietako bat.

● BETH A. KEISER / AP



Marlon Brando, bere osotasunean.



panpilonia zirkus

Ualdoren semea

«Goizeko hamaikak baino lehen zabaldu behar den negozioa ez duk negozio ona». Goizeko hamaikak ziren eta Karrika Nagusiko Bar Garciako edonori erraten zion hori Jesus Ataunek, ondoko dendako nagusiak, alegia. Jesus gizon jatorra zen, txikia, beti txapela eta bata urdina jantzita ibiltzen zena. Negozioa aitarengandik hartu zuen Jesusek. Izan ere, Ubaldo Ataunek denda XIX. mendean zabaldu zuen, gaur egun dagoen tokian berean, Karrika Nagusiaren eta Eslaba kalearen arteko izkinan. *Casa Ataun izan da beti, eta Jesusek ardura hartu zuenean, Hijos de U. Ataun* kartel handia paratu zuen ate gainean. Ubaldok erregalizia egiten zuen, Iruñeko famatuena, goxoen, baita goxokiak ere. Goxokiak biltzeko paperetan koplak bana ageri zen, duela

ehun urteko iruindarrei biziki gustatzen zitzazkienak: «*Somos 7 de cuadrilla y los 7 de alpargata, y no les tenemos miedo a otros 7 de corbata*».

Erregaliz hura oso sendagai ona omen zen. Kontua da Ataun etxearen parean bazela Negrillos jaunaren botika denda eta salgai izaten zuten karmeldarren jareba, gaitz guztiak sendatzen omen zituen, katarroa barne. Ubaldok, ordea, harroko eta kontent, erraten zuen bere erregalizak, behin baino gehiagotan, katarroa sendatu ziola Negrillos botikariari. Ubaldo aspaldian joan zen zerura, hori bai, semeei erregaliza egiteko errezeta eman ondoren, beti kolkoan gordeta omen zeramana, baita lo egiterakoan ere. Ez zen harritzekoa. Konparazio batera, duela gutxi arte behintzat, mendigoizale-



Hijos de U. Ataun denda, Karrika Nagusian.

ek ere bereziki estimatu dute erregaliz hori, garaierako gaitzaren aurka.

Urteak joan urteak etorri, baten batek Julian Balduz alkateari jakinarazi zion Jesus Ataun adinez aurrera zihoala eta ez-

kongabea zela. «*Alkatea etorri eta proposatu zidak errezeta emateko. Ordainez, Udalak bizitokia eta jatekoa emanen zidak*». Betiko bezeroekin eta Bar Garciako zurruteroekin solas egin ondoren, azkenean onartu zuen Balduzek egindako proposamena. Horrenbertze sos hilabetero eta Udalaren kontu ere Gazteluko plazako Hotel La Perlan bizitzea, hil arte, noski, Udalaren ustez mundu honetan denbora luzea emanen ez zuelakoan. Ordainez, denda utzi behar zuen, eta erregalizen errezeta eman. Gauero, Kafe Nizan koadrilarekin bildurik, gauza bera erraten zuen. «*Ziria ederki sartu zieat, alkateak uste dik benetako errezeta eman die-dala, eta ni La Perlan, Sarasate bezala*», eta irri egiten zuen. Eta irri hura luzaro entzun zen, Udalak uste baino anitzez ere luzarago, Ualdoren semea hagitz sasoi onekoa gertatu baitzen.

Enrike Diez de Ultzurrun

Jon Andoni Goikoetxea ● FUTBOLARI OHIA

«Lortutako lagunak estimatzen ditut gehien»

GUARDIOLA, SALINAS, BEGIRISTAIN, Zubizarreta, Clemente, Koeman... aspaldiko lagun asko etorri zen Iruñera Goikoetxea agurtu eta berarekin egotera bere omenaldi egunean. Ekitaldiak hunkituta utzi du futbolari ohia.

■ Ez ahazteko moduko eguna?

Bai, ez nuen uste inoiz horrelako omenaldia jasoko nuenik, eta oso kontent nago. Jende ugari bildu zen Sadarren, eta aspaldiko lagun asko etorri zen nirekin egotera. Ibilbide luzea izan da, lau talde garrantzitsutan, baina, azkenean, lortzen dituzun lagunak estimatzen dituzu gehien. Haiekin egotea eta aspaldiko garaia gogora ekartzeara izan da politena.

■ Bukaera polita zurea bezalako karrera luze eta garrantzitsu batentzat.

Bai. Duela bi urte eta erdi utzi nuen futbola, baina omenaldia izan da nolabaiteko amaiera ofiziala. Azken bi urteotan, egia erran, inoiz ez zait burutik pasatu berriro futboleant hastea.

■ Sadarren bi gol sartu eta gero, futbolaren harrak ez dizu barrua apur bat astindu?

Ez, ez. Oso gustura ibili nintzen, eta bi gol sartzea oso polita izan zen, inoiz ez bainaz goglegile izan, baina nahikoa da egun batekin. Sasoian nengoela erraten zidan jendeak, eta horrek poztu ninduen.

■ Iruñean jaso duzu omenaldia, sorterrian; futboleant ere, hemen hasi eta hemen bukatu zenuen zure ibilbidea.

Osasuna oso talde garrantzitsua izan da niretzat, talde horretan osoki bilakatu bainintzen jokalaritza eta pertsona. Osasunan hiru urte eman nituen, baina taldeak dena eman dit, baita Iruñean bukatzeko aukera ere. Gustatu izanen litzaidake Osasunan denbora gehiago egotea, baina hiru talde handitan aritu nintzen ondoren, eta hori gauza handia izan da niretzat.



● OSKAR MONTERO

Zaleen omenaldi beroa jaso zuen Jon Andoni Goikoetxeak joan den astean, hilaren 2an, Sadarren. Lagunak eta familia izan zituen ondoan, eta, haiekin, futbolaren munduan egindako ibilbide luzea ekarri zuen gogora.

■ Bartzelona izan da horietako bat, garaipen gehien eman dizuna.

Bai. Bartzelonarekin lortutako eman zidan aukera munduko txapelketa bat jokatzeko. Oso garai polita izan zen, agian Bartzelonak bizi izan duen politena, jokoz eta garaipenez. Europako Kopa bakarra du taldeak, eta hura lortzen parte hartu nuen. Realari eta Athletici buruzko oroitzapenak ere oso politak dira: Atotxan jokaturako UEFAko partida zoragarriak, San Mamesekoak... Osasunarekin UEFA aritzea ere sekulakoa izan zen, lehen aldiz ari baitzen taldea lehiaketa horretan. Jendea, ordea, irabazitako txapelketek oroitzen da, eta horiek Bartzelonarekin irabazi nituen.

■ 'Dream Team'aren garaia izan zen. Lor

■ daiteke ordukoa bezalako beste talde bat?

Ez dut uste ona denik beti atzera begira egotea. Egia da garai polita izan zela, berezia, orduko jokalaritza guztiok oso une onean ginelako. Bagenekien entrenatzaileak zer nahi zuen, eta dena ongi atera zitzaigun. Euskal Herriko zortzi bat jokalaritza geunden taldean, lauzpabost katalan, eta atzerriko jokalaritza apartak ziren; aldagelako giroa aparta zen.

■ Bartzelonan asko aldatu dira gauzak, baita futboleant ere, oro har; zer iruditzen zaizu oraingo egoera?

«Realari eta Athletici buruzko oroitzapenak oso politak dira: Atotxan jokaturako UEFAko partida zoragarriak, San Mamesekoak... Osasunarekin UEFA aritzea ere sekulakoa izan zen»

Bilakaera handia izan da. Askoz diru gehiago mugitzen da futbolaren inguruan, eta, horretaz gain, taldeen egitura ere aldatu da. Atzerritar gehiago dago. Harrobia bazter uzten dute askok, eta atzerritarrek ekartzen, nahiz eta hobeak ez izan. Gustatuko litzaidake Euskal Herriko taldeak gehiago auzartzea harrobiko jokalariekin.

■ Japonian ere izan zara; han oso bestelakoa da futbolaren egoera?

Bai, ez baita kirol nagusia; beisbolak eta sumoak askoz jarraitzaile gehiago dute. Ez zegoen presio handirik, eta irabazteak edo galtzeak ez zuen garrantzi handirik. Niretzat oso esperientzia polita izan zen, hemengo jende askorekin egin nuelako bat, Azkargorta, Salinas, Begiristain eta beste. Niretzat bolada ona izan

soslaia

20 urte azpiko Munduko Txapelketa eman zion Osasunari jokatzeko aukera Jon Andoni Goikoetxeari. 1985. urtean ailegatu zen nafarren lehen taldera, eta 1988a arte egon zen. Urte hartan, Realak fitxatu zuen.

Realarekin bi denboraldi egin zituen, eta Gipuzkoatik Bartzelonara egin zuen salto Goikoetxeak. 1992. urtean Europako Kopa irabazi zuen katalanekin; Espainiako lau Liga, Espainiako Superkopa bat eta Europako beste bat ere irabaziak ditu Bartzelonarekin.

Bartzelonatik Athleticera, 1994. urteko Munduko Txapelketa jokatu ondoren, eta Bilbotik Japoniara, Yokohama Marinos taldera. Japoniako abentura amaituta, Osasunara itzuli zen, 1998. urtean, eta hurrengoan agur erran zion taldeari eta futbolari. Egundak, haurren hainbat talde entrenatzen ditu, eta Bartzelonako partidetan esatari gisa aritzen da, Canal Satelite Digitalerako.

zen, baina familiarentzat ez hainbeste. Horregatik erabaki genuen itzultzea.

■ Erabaki asko hartu behar izan duzu zure ibilbidean. Real Madrili ezezkoa eman zenion, adibidez. Horietako batentzat damu zaizu?

Ez, zorte handia izan dut beti, eta ibilbide polita egin dudala uste dut. Batzuek erraten didate goiz utzi nuela futbola, baina nik uste dut erabaki zuzena izan zela nirea. Real Madrilekin hitz egin nuen, Bartzelonarekin ez nuelako akordioa lortzen, baina, azkenean, Bartzelonan gelditu nintzen, eta pozik. Oso pozik egindako guztiarekin.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Europa eta biok

Garai batean gauza bitxia zen, hamar izar oihal batean eta izen itsusi samarra, *Comunidad Económica Europea*. Eta orduan bizarraren lehen ileekin kezkatuta geunden umemokoentzat deus gutxi gehiago zen. Denborarekin, ordurako birjintasan guztiak galdu nahi zituzten gazte tximaluze bihurtuta, ekonomiko hori desagerrarazi zuten eta Europar Batasunarena ikasi genuen. Helburuak inoiz baino ekonomikoagoak bihurtu ziren ordea.

Gailurretik gailurrera kazetariak ez zutela inoiz lorik egiten jakin genuen eta Margaretten eszeptizismoaren berri izan genuen. Egun batean, kartografoek arte handiz marraztutako mapetako mugak desagertu zirela esan ziguten, baina gure mugak inongo mapa ofizialetan agertzen ez zenez, alderik ez genuen sumatu.

Gerora etorri ziren beti hutsik dagoen parlamentu handi baten irudiak, funtzionarioen joan-etorriak, Estrasburgotik Bruselara. Aurpegi berriak goi bileretan, baina diskurtsoan aldaketa handiegirik ez. Eta herri-tarrak mutu, herriaren alde baina herria aintzakotzat hartu gabe dioen politikaren legea azken muturreraino eramanez. Erreferendum gutxi eta susto gehiegi: ona dena ona. Eta kitto.

Azkenean moneta bakarra, ekua zena orain euroa da, karlomagno askoren ametsa. Merkataritzaren erresuman diruak agindu ohi du eta honako kasua ez da salbuespena izanen. Ezagutzen dugu Europako Banku Zentraleko lehendakariaren kalpar zuria, baina oraindik ez dakigu deus Europa honen helburuen inguruan. Estatu Batuen gainean egotea omen da erronka, baina inork ba al daki zenbat bonbardaketa, hildako eta zeharkako kalte behar den horretarako?

Aurrerago hasiko omen dira konstituzio batean pentsatzen eta beharbada epaile espainiar baten autoetan oinarrituko dira horretarako, baina bitartean diruaren legea da indarrean jarri dutena. Ez dakit zertarako aldatu zioten izena nerabegaroko CEE horri eta ez dakit non gelditu den bizarrrik gabeko umemoko hori.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Aitzoain:** Fito & Fitipaldis taldeak Artsaian joko du, bihar, 23:00etan.
- ▶ **Burlata:** Hurakan 2000 taldea Black Rose tabernan ariko da, asteartean, 20:30ean.

HITZALDIAK

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Joseba Asiron irakasleak *Navarra, civilización y patrimonio* izenburuko hitzaldia eskainiko du, 19:30ean, Nabarrerria kultur zentroan.
- ▶ **Iruñea:** Ricardo Rojas, Kolonbiako desplazatuen koordinadora-kidea, Kolonbia Planak bizilekutik mugiarazi dituenen egoeraz ariko da, gaur, 19:30ean, Zabaldin.

IKASTAROAK

- ▶ **Iruñea:** Alde Zaharreko auzo elkarteak urtarriletik martxora egingen dituen ikastaroetan izena emateko epea bihar akituko da: eskulanak, yoga eta erlaxazioa, argazkigintza, marrazketa, areto dantzak, antisoinketa, masajea, txalaparta, Internet eta euskal dantzak. Informazio gehiago 948-212526 telefonon.
- ▶ **Iruñea:** Elur-jausietan salbamendu lanak egiteko ikastaroa egingen dute Nafarroa Kirol Elkarteak, hilaren 18tik 24ra. Informazio gehiago, 948-224324 telefonon.
- ▶ **Iruñea:** Nafarroako Goi Mendi Eskolak alpinismo ikastaroa emanen du hilaren 19, 20, 26 eta 27an. Informazio gehiago, Mendi Federazioan (Paulino Caballero, 13).
- ▶ **Barañain:** Otsailetik maiatzera hainbat ikastaroak emanen ditu Barañaingo Udalak: dantza latinoak, zaharberritzea, zeramika eta marrazkilaritza eta pintura. Izena urtarrilaren 14tik 23ra eman beharko da, Kultur Etxean, astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara; baina asteazkenean, 17:00etatik 18:00etara.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Gloria Ferrer margolariaren lanak Lacava galerian daude ikusgai, igandea arte.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Gaur zabalduko dute argazkigintza lantegiko hamabost ikasleren lanek osatu *Erretratoak* erakusketa. Hilaren 27a arte izanen da, Kultur Etxean; lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta

jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

- ▶ **Iruñea:** Jon Landaren olio lanak Ormolu galerian dira (Paulino Caballero, 42) hila bukatu arte.
- ▶ **Iruñea:** Javier Gamez mendizalearen *De los susurros del camino* izeneko argazki erakusketa hila akitu arte izanen da, Nafarroa Kirol Elkarteak (Jarauta, 78), astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Iruñea:** Adolfo Lahoza aragoiarren margolanen erakusketa otsailaren 8a arte izanen da, Hezkuntza Departamentuko

klaustro gaineko galerian. Lanegunetako goizetan bisitatzen ahal da.

- ▶ **Zangoza:** Hainbat artista garai-kideren lan grafikoa biltzen duen *Suite Olympic Centennial* izeneko erakusketa gaur zabalduko dute, Kultur Etxean. Otsailaren 12a arte izanen da ikusgai, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Barañain:** Izarren herria ezagutzeko, *Planetario bidaiaria* erakusketa izanen da Kultur Etxean, astelehenetik otsailaren 22a arte.

JOXE LACALLE



Sasikazetariak

Iragan larunbatean, Iruñeko Gazte Asanbladako hainbat kide Alde Zaharreko karraketan barrena ibili ziren, Kalea gurea delako, gazteok jolastera letotzat hartuta, gazteek etxebizitza, enplegu eta kultur arloetan dituzten gabeziak salatu nahi zituzten. Perkusio talde baten musika lagun, apaiz, politikari eta kazetarien gisako pertsonaien parodia egin zuten. Azken horiei dagokienez, gezurrezko mikrofono, telebista kamera eta argazki makinekin, kale inkesta egin zuten bizilagunen artean. Auskalo zer galdetuko ote zieten, eta zelakoak izan ziren erantzunak. Eta auskalo zer egingen ote duten atera zizkiguten argazkiekin? Zein kriminalizazio kanpainatan erabiliko dituzte?